

SANTA ENGRAZI, HAUZO LANEAN BERRITUA

Maiatzaren 18an berritze jaia

ZERUKO ARGIAren irakurleak dakiteenez azken urtebete honetan Santa Engrazi Ermita berritzen ihardun dira hauzo lanean. Urtebete luzean egindako lanen ondoren, bukaeran aurkitzen dira. Lan honen ezaugarri bat utzi nahiaz edo, jai bat antolatzekotan dira, aipatu auzo langileak, Santa Engrazin.

Euskal Herri guztian, eta baitpat mendizaleen artean, ezaguna dugu Santa Engrazi gailurreko ermita. Eta berritu duten ermitaren berri gehiago jakin asmoz Joxe Mari Zunzunegi, zestoar histori-gilearengana jo dugu. Berak azaldu digun zenbait puntu aipatuko dugu hemen.

Santa Engraziko histori aztarrenak jakiteko bi bide omen ditugun batipat: egizta ditzakegun dataok, eta kondaira edo ustezko berriak.

Lehenbizikoak aipatuko ditugu bereziki, horiek ematen bait ditugute seguruena: Arkeologia aldetik begiratutik lehen aztarrenak XV. mendearen bukaerakoak dira. Gotiko haroko ate bat eta lau leiho (bat azken berritze honetan aurkitua hain zuzen) ditu gure ermitak.

Hormek, zenbait garaitan neurri desberdinak agertzen dituenegero, behin baino gehiagotan aldatuak izan zirela dirudite.

Horrela bada, Santa Engrazi Ermita, gutxienez eta historiari zientifikoki begiratutik XV. mendearen azken aldekoa dugu nahiz eta historiagile askoren ustez lehenagokoa izan. Bainan oraindik behar bezala azterteke dago arazo hau.

Idatz agiritara jotzen badugu berriz, beste zenbait berri aurki dezakegu: Oinatiko artxibuetan, Joxe Mari Zunzunegik aurkitu duenez, garai batean «freira» delakoak egon omen ziren ermita zaintzen. Gurpen haundiko eliza omen zen eta jende askok uzten omen zuen diru laguntza.

Horrela, Elkano hospetsuak ere dukat bat utzi omen zuen ermitaren beharretarako. XVII. mendeko «freira» batek ere honela dio: «Bizkaiko Nagusigo osotik etortzen da jendea».

Aipatu dugun bezala eta garaiko ohitura zenez, ermitaren ondoan zegoen etxeto batean, bizpahiru «freira» zeuden. «Freiraok» elizetako beharrei erabat loturik emakume ezkongeeak omen ziren. Azken berritze honetan, aipatu etxetoaren aztarrenak azaldu dira.

XVIII. mendean Karlos III.k deuseztatu zuen ohitura hau.

«Freiraon» berri jakiteko, aipagarri dateke Oinatiko artxibuetan agertzen den hau: «Maria Etxeegaray freirak bere kide Maria Celayari zapi zuri bat uzten dio testamentuan eta limosnetan jasotako 500 dukat ermitarako».

Bestalde, aipagarri zaigu dorreko ezkila ere. Metro eta erdi diametroko ezkila da eta honelako elizetako ezkiek ohi ez bezalao neurriak ditu.

Kondaira edo ustezko iritziei begagozkie aldiz, Aurre-Romaniko garaiko guruteta ere ezagutu omen zezakeen Santa Engrazik. Kristautasuna sartu aurretik jentil eliza bat ere izan omen zezakeen bainan berriok guztioak ez dute batera segurtasunik, oraindik ez bait dira zientifikoki aztertu.

Juan Erentxunek ere, Adriani Iruineko gotzaiaren esan bat aipatzen digu: «Santa Engrazi gure eliz barrutiko elizarik zaharrenetarikoa dugu». Bainan oraindik gauzaok, esan dugunez, aztergai berterik ez dira.

Berritze lanei buruz, idatz agiritan azaltzen denez, 1771. urtean zenbait berrikuntza izan zuen ermitak: karaitzez egindako kanpandorra soilik, J.M. Zunzunegiren ustez.

Duela zazpi urte ere, orain dabiltzanak berak hain zuzen, beste berrialdi bat eman zioten azkeneko honen mailakoa izan ez bazen ere: korua kendu, erloju jira ixki, hormak barru aldetik masaz hartu, bi zutabe berri sartu, telatuan erretila egin eta ezer gukxi gehiago.

Joxe Mari Zunzunegiren ahos historia apur bat jakin ondoren aipatu hauzo langileengana jo dugu, berritze lanak noia burutu dituzten eta maiatzeko jaia zertan den jakin asmoz. Horretarako zenbait galdetara zuzendu diegu antolaketa lanetan gehien salatu diren hauzo langileetako bi adiskideri. Aurrean ditugu lanotan hain ezagunak diren zestoar bi gazte: Martin Umanue «Martija» eta Alberto Mendia «Motxa». Lanubat arratsa da eta etengabe lanean ihardun dira gaur ere. Zenbait berriketa alde batera utziaz, harira jo dugu lehen galdetaz:

—Nolatan hasi zineten lanotan?

—Ba, ihazko Santa Engrazi egunez, biok hain zuzen, gailurrea igo ginen eta ermitaren egoera tamalagarriaz jabetu: teliatua nolabait, dorrea berriz tximistak hautsia... Duela zazpi urte egindako lanak ezer guxtiarako balio izan zitela eta lan haundiago baten beharra ikusi genuen.

—Egoera honetaz jabetu ondoren nora zuzendu zentituzten lehen urratsak?

—Hurrengo igandean bertan Aizarnako Errelore eta Joxe Mari Zunzunegi, eliz barrutiko erlijio arte saliko arduradunarekin egon eta geure asmoak azaldu genizkien. Ontzat eman zuten gure asmoa eta Joxe Mari arte eta berritze alde-

tia bi «tiera» haundiz sostengatzea zela egokien adierazi zigun.


—Han egin dituzuen lan guztiak aipatzeak luzeegi joko liguke bainan, laburtuko ahal zenizkigukete lanok?

—Bai, berehala. Lehenik dorre eta esiatutik hasi ginen. Hortarako zimentuak gogortu eta horma gainak jira guztian hormigoiz hartu genituen, teliatuari lehen ez zuen bolidura atera behar bait genion jira osan. Eguraldien erasoen arriskua ikusiaz, egur marduri eta bikinak sartu dizkiogu teliatuari. Gero Zunzunegiren kontseiluaz eker aldean zuen gotiko leihoa aurterra aldatu dugu, egokiago omen dago eta. Aurkitu dugun beste gotiko leihoa ere moldatu beharra izan dugu. Erreablo zaharra kendu ondoren berria egin dugu mo-saikoz. Hau Jose Luis Iruondo eta Jesus Huarteren lana izan da.

Ezkila gogortu eta tximistorratz berria ipini dugu. Bestalde barruan zeuden irudiak berritzera bidaliak dira. Eliz barrutian jasorik zegoen San Inazioaren irudia ere han izango dugu hemendik aurrera. Zorrak ere badiu berritzeko premiarik, bainan geroarako utzi dugu.

—Langilez ondo osatu ahal zarete?

—Bai, jendeak ondo erantzun du.



tik behar genituen kontseiluak eskaini zizkigun.

—Bi jaun hoviekin elkarriketatu eta berehala hasi ahal zineten lanean edo beste nonbaitera jo zenuen?

—Ez, lagun prestu batzuei deitu ondoren litu-mustuan eta batera eralkizunik egiteke dorreari ekin genion. Teliatua aztertzen eta askatzen hasi ginenan eta bere egoera makala ikusita gero, teliatu zaharra bota eta erabat berria egitea pentsatu genuen. Izan ere beste ezer egiterik ez zegoen egur zaharkitu eta apurtutako tela haik ikur-si ondoren.

Hortia, gure ermita uste baino egoera okerragoan zegoenarik. Gihert arkitektoarengana jo genuen kontseilu eske.

—Zer esan zizuten Gihert arkitektoak ermitaren egoera ikusi ondoren?

—Giherten kontseiluak bi egiturari lotu zitazkion batipat, dorrearenari eta teliatarenari. Dorreak harri batzuk hautsirik zituenek konponketa lanetarako dorreari nola eutsi erakutsi zigun. Lan izugarria benetan dorrearen prestaketa hau! Teliatuari zegoionez berriz, lau zutabeak kendu eta teliatu guz-


Batanaz beste astero hamaseiren bat lagun biltzen ginen. Hogeita zazpi inguru bildu garen egunak ere izan dira. Guztira hirurogei bat ibiliko ginen. Bazketien nora zetozen eta gogoz inaurdun dute haun-zo lanean.

—Ingurutako jendea bilduko zen noski?

—Santa Engrazi inguruko lau edo bost baserriar, azken aldeara beste lau bat igeltsero azpetiar eta beste gehienak zestoarrak izan gara jai egunetako hauzo langileak. Bestalde, aipagarri zaigu zaldibiltar bi igeltsoreten lana. Igande askotan etorri zaizkigu Zaldibitk honeraino. Tella jaritze lanik haundienak beren esku joan dira.

—Urtebete inguruan ihardun duzue. Honek garbi adierazten digu egin duzuen lanen neurria. Zer egin eta zer garaitan burutu duzue han-go lana?

—Urte bete osoko jai egun, igande eta larunbatak han igaro ditugun. Jai eta igandetan goizez, eta larunbategian, arratsaldez. Uda eta Gabonetako opor eta gaimontzeko egun libreak ere han igaro ditugu. Horretaz gain aste egun arratsaz ere han asko egin dugu nahiz eta ermitara ez igo, diru eske, langai bila, lagun bila e.a.



—Jendez eta beso indarrez osatu zarete ikusiaz eta diru arazotara itzuliaz, zer moduz moldatu zarete?

—Bai! Diputazioak 80.000 pezeta eman dizkigu, Gotzaiokak 50.000. Zestoako Udalak beste 50.000 asintu dizkigu: beste Udai, Aurrezki Kutxa, Banku etabarrak ere zer-bait lagundu digute. Herri soñak ere ondo erantzun digu, izan ere herria mugitzen ez bada ez bait dago ezer egiterik. Bestalde zenbait lan eta langai dohan/egin da: lehenik, dakizunez esku lan guztia hutsaren truke egin da. Aipagarri dateke Jesus Huarte eta J.L. Iruondoren lan bikaina ere. Tximistorratza, portlana, bidritza eta beste gauza asko ere dohan eskaini dizkigute. Kamioi bat ere ia erabat geure esku eduki dugu. Lerro haetatik, hemen aipatu guztiak, esker-tzea nahi genuke.

—Lan haundiak egin badituzue diru laguntza ere haundia behariko zenuiten. Laguntzaokin bete ahal duzue diru aldetik zenuen zuloa?

—Ez, oraindik hogei bat mila duroko zuloa dugu, bainan, antolatut dugu jaia dela eta beste laguntzak direla, aurki beteko dugula deritzagu.

—Lan neketua eguraldia, mendi gailur hura e.a. eragozten ikusirik ezbeharrik edo istripurik izan ahal duzue?

—Bai, zorritarrez ia bukaeran izan dugu halako istripu bat. Orain arte, lagun bati behatza lehetu bantzizaton ere ez genuen ezeren okerririk izan. Bainan Apirilaren 6an eta lanak bukatu ondoan, hainbat lan egin duen Joxe adiskideak min hartu zuen. Altura haunditik ez bazen ere era txarrean erori nonbait eta izter hezurra hautsi digu. Familia batoko guraso denez zer-bait laguntzera behartuak gaude.

—Gisa honetako lana bukatuz, gure ustez mezezi du jai bikain bat antolatzeara. Zer egitarau prestatu duzue datorren 18rako?

—Igandean, lehenik txalaparta-lariek Herri Meza adieratzeko ditugute Santa Engrazi gailurretik. Aldareta sagaritzeke dagoenez, Joxe Mari Seïden Gotzai laguntzailea etorriko da aldarra sagaratu eta eta Herri Meza zuzentzera. Ondoren bertsoari; zestoar dantzari txiki eta txistulari, eta trikitilarietkin jaialdi alaitu bat ospatuko dugu. Eta bukatzeko nahi duzuten guztiokin Lagunarteko Bazkaria.

Besterik gabe agurtzen ditugu bi hauzo langile prestuok maiatzaren 18rarte, gure zoriorik beroenak eta Joxe lehen bat lehen/senda dadila opatuz.

Geure aldetik lanerako batasunaren eredu bezala agertzen ditugu hauzo langileok. Elkarren artean hastako eguntza erabat bukatu dutela aitatasun ederrean. Beste hainbat herri egintza ere badugu gure herri honetan. Horrelako elkartasunez jokatuکو begenu zenbat gauza erabakiko ote gentituzke?